

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5337

AGINDUA, 2023ko azaroaren 22koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez eguneratzen baitira Doako Laguntza Juridikoaren urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren III. eranskinean jasota dauden moduluak eta konpentsazio ekonomikoko oinarriak.

Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak zerbitzu publiko gisa eratzen du laguntza hori, Abokatutzak eta Prokuradoretzak emana eta funts publikoekin finantzatua, botere publikoei baitagokie baliabiderik ez duten pertsonak justiziarako sarbidea izan dezaten bermatzea. Legearen 37. artikulua ezartzen duenez, administrazio eskudunak diruz lagunduko ditu, bere «aurrekontu-zuzkiduren kargura, abokatuen eta prokuradoreen elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezar, arreta eman eta funtziona dezaten». Era berean, legeak xedatzen duenez, doako laguntza juridikoko zerbitzua duina eta behar beste konpentsatua izateko printzipiotik abiatzen da finantzaketa hori.

Doako Laguntza Juridikoaren urriaren 30eko 153/2018 Dekretuak doako laguntza juridikoari dagozkion jarduerak diruz laguntzeko prozedurak arautzen ditu EAerako, eta artikuluetan eta III. eranskinean ezartzen ditu zerbitzu horri dagozkion jarduerak konpentsatzeko oinarri ekonomikoak eta moduluak.

Ekainaren 21ean eta maiatzaren 29an jaso ziren sail honetan Abokatutzaren Euskal Kontseiluak eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoek, hurrenez hurren, moduluak handitzeko egindako eskaerak.

Doako Laguntza Juridikoaren urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren 46.2 artikulua xedatzen duenez, dekretu honen III. eranskinean aurreikusitako oinarri ekonomikoak eta moduluak urtero eguneratu ahal izango dira, Eusko Jaurkitzen justizia-arloaren eskumena duen sailburuaren aginduz, elkargo profesionalak aurrez jakitun ipinita.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean ezarritakoaren arabera, 12.600.000 euroko aurrekontua dago Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatutzaren elkargoen ofiziozko txandaren eta guardiako txandaren konpentsazio ekonomikorako, 2023-1001013100-1.14120.45400-2023/00435 partidan, eta, aldiz, 630.000 eurokoa Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoretzaren elkargoen ofiziozko txandaren konpentsazio ekonomikorako, 2023-1001013100-1.14120.45400-2023/00436 partidan.

Aurrekoan oinarrituta, eta bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/97 Legegintza Dekretuan xedatutakoarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Doako Laguntza Juridikoaren urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren III. eranskinean jaso dauden moduluak eta konpentsazio ekonomikoko oinarriak eguneratzea, konpentsazio-modulu berriak ezarrita atxilotuarentzako abokatu-laguntzaren eta doako defentsa eta ordezkartzaren arloan egindako jarduketara profesionaletarako, agindu honen eranskinean jasotako zenbatekoetan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek 2023ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak; beraz, 2023ko aurrekontu-ekitaldiko hirugarren eta laugarren hiruhilekoei dagozkien likidazioei ere aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 22a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

ERANSKINA

MODULUAK ETA OFIZIOZKO TXANDAGATIKO KONPENTSAZIO EKONOMIKOKO OINARRIAK
ABOKATUAK

A) Prozesuz kanpoko jarduketak.

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Prozesuz kanpoko jarduketak	
Atzera egitea	62
Judizioz kanpoko transakzioa	247
Uziaren sostengaezintasunari buruzko txostena	178

Epaitegien arteko bitartekaritza (Zibila eta Merkataritzakoa)

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Epaiketa arrunta	285
Hitzezko epaiketa	171

B) Jarduketa prozesalak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa eta Atzerritartasuna

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa	
Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Proz. arrunta	373
Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Proz. laburtua	356
Apelazioa, p. arrunta	148
Apelazioa, p. laburtua	143
Kasazio-errekurtsoa	214
Atzerritartasun-arloko jarduketak	
Administrazio-espeditentea	247

Zigor-arloko jurisdikzioa

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Zigor-arloko jurisdikzioa	
Zigor-arloko prozedura berezia	742
Zigor-arloko prozedura berezia (genero-indarkeriaren biktimak)	800
Prozedura arrunta	378
Prozedura arrunta (genero-indarkeriaren biktimak)	408
Kondenen pilaketa (helduak)	373
Adingabeak	368
Neurriak batzea (adingabeak)	356
Adingabeak Judizioz kanpoko erreparazioa	184
Epaiketa azkarra / Zigor-arloko monitorioa	378
Apelazioa	222
Erreforma, apela daitezkeen ebazpenen aurkakoa (onetsiz gero)	112
Espetxe-zaintzako espeditentea	222

2023ko azaroaren 28a, asteartea

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoaren aplikazioa	742
Delitu arinen epaitzea	186
Delitu arinen apelazioa	112
Pertsona juridikoentzako laguntza epailearen erabakiz	377
Kasazio-errekurtsoa	214

Jurisdikzio zibila

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Jurisdikzio zibila	
Hitzezko prozedura zibila	375
Prozedura zibil arrunta	400
Monitorioa	178
Ezkontzazkoa	654
Borondatezko jurisdikzioa	317
Ikustaldia edo kontraesana borondatezko jurisdikzian	115
Familia-arloko betearazpenak	378
Kontulari banatzaile erabakitzailea	372
Hitzezko apelazio zibila	143
Apelazio zibil arrunta	148
Ezkontza-apelazioa	222
Kasazio-errekurtsoa	212

Lan-arloko jurisdikzioa

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Lan-arloko jurisdikzioa	
Prozedura osoa	356
Erregutze-errekurtsoa	148
Kasazio-errekurtsoa	213

C) Prozedura bereziki konplexuak

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)	
Prozedura bereziki konplexuak	5.000	
Zigor-arloa	Auziaren mila folioko (1001. foliotik gora)	29
	Ikustaldi-egun bakoitzeko, hirugarren egunetik hara, gehienez ere 20 (egiaztatzeko)	91
	Auzi bereziki konplexuak direla-eta, zigor-arloko prozedura bereziaren moduluaren baremoa halako lau kopurua finkatzen da, gehienez ere.	2.969

PROKURADOREAK

Tipologia	Prozeduraren zenbatekoa (euros)
Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa	
Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa	31
Zigor-arloko jurisdikzioa	
Zigor-arloko prozedura berezia	62
Zigor-arloko prozedura berezia (genero-indarkeriaren biktimak)	66
Prozedura arrunta	33
Prozedura arrunta (genero-indarkeriaren biktimak)	35
Apelazioa	24
Espetxe-zaintzako espedientea	24
Pertsona juridikoentzako laguntza epailearen erabakiz	32
Jurisdikzio zibila	
Familia-auzien prozedura osoa (adostasunik gabekoak)	67
Arrunta. Adostasunik gabeko gainerako prozedurak	33
Adostutako akordioa	31
Apelazio zibila	24
Lan-arloko jurisdikzioa	
Prozedura osoa	31
Erregutze-errekurtsoa	24
Prozedura bereziki konplexuak	
Konplexutasun, iraupen, zailtasun edo dedikazio berezia duten prozedurak dira. Konplexutasun horren arrazoiak hainbat izan daitezke, hala nola, gaia, lurraldea, inplikaturako pertsonak, jurisdikzio-organoetan diligenzia asko egin beharra, edo bestelakoak, baldin eta Eusko Jaurlaritzan doako justiziaren kudeaketaz gain dena delako prozedura judizialari dagokion moduluaz arduratzen den zuzendaritzak balekotzat hartu eta baimentzen baditu, elkargo eskudunak aurretiazko txosten arrazoitua eginda eta salbuespenez.	171